

# Arraioa! Lerdesaurioa!

ALAN  
MACDONALD

Ilustrazioak  
Mark Beech

Itzulpena  
Regina Larrucea

desclée

# Edukiak

|                                           |     |
|-------------------------------------------|-----|
| 1 Harkaitz-paloia . . . . .               | 4   |
| 2 Norena da gorotza? . . . . .            | 16  |
| 3 Txintik ez . . . . .                    | 28  |
| 4 Bagora joatea bururatzen bazazu . . . . | 42  |
| 5 Bai lindingatsua! . . . . .             | 53  |
| 6 Hetur aukeraketa . . . . .              | 64  |
| 7 Guztiok egin behar ditugu sakrifizioak  | 76  |
| 8 Umily salbatzera! . . . . .             | 87  |
| 9 Lerdesaurioaren gordelekua. . . . .     | 95  |
| 10 Jaitziera luzea . . . . .              | 105 |
| 11 Ahoz behera galdu duzu . . . . .       | 114 |



## Oso-oso aspaldi...

Duela aro asko, mundua toki basati eta mortua zen. Ez zegoen ez etxerik, ez dendarik, ez eskolarik, ez irakaslerik, ez autorik, ez komunik, ezta kakahuete-gurinezko ogitartekorik ere. Existitzen ez ziren gauzak hainbeste ziren, non guztiak idatziz gero liburu honen orrialde guztiak beteiko bailirateke eta ez litzateke istorioa kontatzeko tokirik geratuko.

Mundua nolakoa zen imajinatu nahi baduzu, irudikatu mendiz, basoz, haitzez eta harriez jositako paisaia amaigabe bat. Egia esan, harriak nonahi zeuden, garai hura harri Aroa zelako.

# HARRI AROA

Bagoan pasapiztia mordoa pizi zen, adibidez, hartzak, hortz handiko tigreak eta mamut iletzuak, hau da, ilea mozteko premia handia zuten elefanteak ziruditen animalia erraldoiak. Normalean, jendea bagoetara ez gartzen saiatzzen zen. Triputan elkartzen ziren, seguruagoa zelako eta errazagoa zelako janaria prestatzeko. Tripu horietako bat Urk Tripu zen.

Urkak ligkarti samarrak ziren, eta pizar eta hanka iletzuak zeuzkaten (pereziki emakume batzuek). Animalien larruekin janzen ziren eta Urk haranera eta haranetik igarotzen zen ipaira begira

zegoen muino pater tontorreko haitzuloetan pizi  
ziren. Haitzulo horietako batean Iggy izeneko mutil  
bat pizi zen. Ez zen tribuko pertsonarik garaiena,  
ezta iletsuena ere, baina irudimen handia zuen, eta  
horrek arazo askotan gartzzen zuen. Jakina, hori  
beste kontu bat da . . . Baina zorionez, horixe da  
hastear dagoen istorioa . . .





Iggyren osaba tribuaren Buruzagia zelako izango zen, edo beharbada, Aitak esan ohi zion bezala, “gehiegi pentsatzen” zuelako. Edozein kasutan ere, Snarkek biziki gorroto zuen. Horrexegatik, hastear zegoen partida ez zen garrantzitsua besterik gabe, aspaldiko norgehiagoka bat ebazteko aukera bat zen.

Borg bi kapitainen zain zegoen, zelaiaren erdian. Finaleko partidaren arbitroa Snarken aita zen, nola ez. Epalea tribuko zaharrek aukeratzen zuten, eta Borg, kasualitatez, Zaharren Burua zen.

Iggyk zelaiaren inguruko jendeari begiratu zion. Bazirudien tribu osoa etorri zela partidura. Batzuk zuhaitzetara igo ziren hobeto ikusi ahal izateko. Egun bikaina zen harkaitz-baloian jokatzeko, hodei beltz eta lodiekin eta zirimirri egonkorrarekin. Iggyk jendetzaren artean bere gurasoak ikusi zituen, Mailuburu Buruzagiaren eta haren alaba Umilyren ondoan zeuden. Umilyren aurrean harkaitz-baloi txapelketako garaikurra

zegoen, harkaitz formakoa. Iggyri Umily Altzeak animatzen ari ote zen jakitea gustatuko zitzaiokeen, baita jaurtiketa berak irabaziko ote zuen ere, harkaitz-baloian erabakigarria zelako.

*HARKAITZ-BALOA: HASIBERRIENTZAKO GIDA*  
*Urk Tribuak dio harkaitz-baloia asmatu zuela, baina Blutmug tribua ere antzeko kirol batean jolasten zen etsaien buruak baloi gisa erabiliz. Arauak, jokalaria gehienak bezala, oso sinpleak dira:*

- 1. Sei jokalariko bi talde HARKAITZA beste taldearen atean sartzen saiatzen dira. Tanta lortzen duen lehenengo taldeak irabazten du.*
- 2. Harkaitza bultza eginez, ostikoka edo YOMPER izeneko egurrezko makila luzeekin kolpeak joz mugi daiteke.*
- 3. Ateak HEZURTOIN izeneko mamut hortz bi zut jarritz mugatzen dira, eta hamar edo hogeit bat urrats uzten dira hortz batetik bestera (urratsak zenbatzen dituen pertsonaren arabera).*



4. Jokalariak mugitzen ari diren harkaitzak BLOKEATU egin ditzakete beren gorputza edo yomperra erabiliz. Baina horrela min har daiteke, baita hil ere.

(Hildako jokalariai zelaitik atera behar dira partiduekin jarraitu ahal izateko).

5. Harkaitz-baloian ez dago FALTARIK.

6. Taldeen kapitainek SUGANDILA BOTATZEN DUTE zelaia nork aukeratuko duen erabakitzeko. Erabakigarria izan daiteke (ikus 8. puntua).

7. HARKAITZ JAURTIKETA! Partidua hasten denean, bi taldeak beren ateetako hezurtoinen atzean daude. Epaileak keinua egiten duenean, bi taldeak korrika joaten dira harkaitzaren bila, eta aurkariaren aterantz bultzatzen saiatzen dira.

8. ZELAIA: Harkaitz-baloia muino batean jokatzen da, eta ondorioz, aldapa beherantz duen taldeak abantaila handia du. K.a. 50.001–50.000 denboralditik jaso diren datuen arabera, muinoan gora jokatzen duten taldeek partiduen %99 galtzen dituzte.

\*

Borgek eskua zabaldu zuen, eta ihes egiten saiatzen ari zen sugandilatxo gorri-gorria erakutsi zien.

—Aukeratu, ahoz behera ala bizkarrez —esan zien, animaliatxo gorantz jaurtiz. Hiru begiparek piztiatxo gorriari jarraitu zioten airean biraka ari zela.

—Ahoz behera! —oihukatu zuen Snarkek.

Sugandila bizkarrez erori zen lurrean, hankak etengabe mugituz. Baina, orduan, Snarkek oina lokatzetan sartu zuen, izakitxoari buelta emateko.

—Ahoz behera! —oihukatu zuen pozik.

Iggyk sinetsi ezinik begiratu zion.

—Zer? Bizkarrez izan da!

Borgek ezezkoa egin zuen buruaz.

—Ahoz behera.

—Tranpa egin du! —kexatu zen Iggy.

Borgek sugandila hartu eta sudurraren azpian jarri zion.

—Zalantzan jartzen duzu epailearen erabakia? —galdetu zion modu txarrez.

Iggyk txistua irentsi zuen.

—Ez, baina...

—Ondo. Orduan, ahoz behera. Snarkek auke-  
ratuko du zelaia.

Snarkek hatz batekin haizea aztertu zuen, zer  
zelai aukeratu pentsatzen ariko balitz bezala.

—Aldapa behera jokatu dugu —esan zuen,  
irribarre harroputz batekin.

Borgek baiezkoa egin zuen buruaz.

—Zer harkaitz?

Snarkek Iggyri begietara begiratu zion.

—Hulka.

Hiru neurritako haitzak erabiltzen ziren txapel-  
ketetan: harri-koskorra, hondakin-harria eta hulka.  
Hulka handiena eta astunena zen, eta normalean,  
gizonak bakarrik arriskatzen ziren harri harekin

